

Gai monografikoa. Jardun biko eredua

102. zenb.

XLI. URTEA
2023 UZTAILA-ABENDUA

ISSN 2530-3287

Ikaskuntza-kontratua

Sblendid proiektuaren baitako beste emaitza bat aurkeztuko da artikulu honetan: ikaskuntza-kontratua. Galiziako Hizkuntza Eskola Ofizialetako (HEO) bi irakaslek hartu zuten parte horren lanketan. Ikaskuntza-kontratua zer den, zertarako balio duen eta dituen abantailak eta desabantailak azaltzeaz gain, zenbait eredu aipatuko eta eskainiko dira.

Gako-hitzak

ikaskuntza-kontratua, jardun biko eredua, lankidetzak, *Sblendid*

**Kerry
Mc Kevitt**

Escola Oficial de Idiomas Ferrol

kerry@eoiferrol.org

**Rut Vázquez
González**

Escola Oficial de Idiomas Ourense

rutvazquez@edu.xunta.gal

1. SARRERA

Sblendid proiektuaren baitan (Fernández et al., 2021), hasiera-hasieratik erabaki genuen beharrezkoa zela ikaskuntza-kontratu bat, bai irakasleentzat, bai ikasleentzat, ezaugarri espezifikokoak eta konpromiso handiagokoak zeudelako jardun biko ereduan. Gainera, pentsatu genuen garrantzitsua zela ikasleei jakinaraztea zenbait baliabide teknologiko eduki behar zirela, baita gutxieneko gaitasun tekniko batzuk ere, eredu horri ahalik eta etekinik handiena ateratzeko. Horregatik, kurtsoaren hasieran formulario gisa aurkeztutako ikaskuntza-kontratuaren bidez ikasleei konpromisoa eskatzeko ideia sortu zen.

Bi irakaslek hartu genuen parte ikaskuntza-kontratuak egiten: bata Ferroleko HEOkoa (Kerry Mc Kevitt) eta bestea Ourenseko HEOkoa (Rut Vázquez). Eskola desberdinetan lan egitea ez zen eragozpena izan produktua diseinatzeko, biek bagenuelako esperientzia eskolen arteko lankidetzan.

Gutako bakoitzak hasierako ikerketa bat egin zuen; aurkeztuko genituen ikaskuntza-kontratuen ereduak idazteko oinarri gisa erabilitako baliabideak partekatu genituen ondoren. Horretarako, honako bide hauek erabili genituen:

- idatzizko komunikazioa, posta elektronikoaren bidez;
- Google Driven partekatutako karpeta bat; hauek igotzen genituen bertara: gaiari buruzko artikulu akademikoak, baliabideen zerrenda bat eta gure ikaskuntza-kontratuen ereduaren zirriborroak, bai irakasleentzat, bai ikasleentzat;
- bideokonferentziak, irakurketak komentatzeko eta azken kontratuen lanketa planifikatzeko.

Dokumentuak egin ondoren, CAFira (*Centro Autnómico de Formación e Innovación*) bidali ziren, ebaluatzeko eta SBLENDID proiektuan parte hartzen zuten gainerako irakasleei banatzeko.

2. IKASKUNTZA-KONTRATUA: ZER DA?

Ikaskuntza-kontratuak ez dakar inolako berrikuntzarik hezkuntzan; besteak beste, badago dagoeneko unibertsitateetan, batez ere graduondoko ikasketetan. Kontratua prestatzeko, "eskaintza" eta "onarpena" legezko kontzeptuak hartu behar dira kontuan; izan ere, kontzeptu horiek etengabeko negoziaketa eskatzen dute parte-hartzaileen aldetik (Brewer eta Sher al., 2007). Horri dagokionez, dokumentu irekia, mugikorra eta ikasleen eta irakasleen artean adostua da, eta honako hauek jasotzen ditu:

- ikaskuntza-helburuak: zer ikasi nahi duzu?
- ikaskuntza-ingurune autonomoa eraikitzeko beharrezko bitartekoak eta baliabideak: nola ikasiko duzu?
- honako hauek eskatzen dituen ordutegia: ikasketa autonomorako denboraren konpromisoa, eskoletara maiztasun handiz joatea, parte-hartze aktiboa, ikaskuntza-produktuak prestatzea eta egitea: zenbat denbora emango duzu horretan?
- ikaskuntzaren ebidentziak: nola jakingo duzu zure helburuak lortu dituzula?
- ebaluazio-prozedurak: zer ebaluazio-tresna edo -metodo erabiliko dira benetan ikasi duzula ebaluatzeko eta baliozkotzeko?

3. IKASKUNTZA-KONTRATUA: ZERTARAKO BALIO DU?

Dokumentu-mota hori ikasleei zein irakasleei aplika dakieke, eta honetarako tresna gisa erabil daiteke:

- aurre-ebaluazioa, AMIA analisisia eta ikasketaren plangintza;
- prozesuaren ebaluazioa eta unitate didaktikoen garapenean helburuen lorpenarena;
- egindako ikastaroaren aurrerapen-mailaren eta helburuen lorpen-mailaren azken ebaluazio analitikoa.

Tresna erabilgarria eta motibatzailea da ikasleentzat; aurrerapena hobetzen duten helburuetan lan egiteko ematen dio, baita autonomia eta kontzientzia handiagoa ere.

Gainera, ikaskuntza-kontratuarekin, esparru-dokumentu erabilgarri bat dugu, pertsona bere helburuetan eta interesetan ardatzeko. Halaber, aurrerapena subjektibotasunik gabe eta modu argi eta arrazoituan ebaluatzeko tresna bat ere badugu.

4. IKASKUNTZA-KONTRATUA: NOLA DISEINA DAITEKE? ESKURAGARRI DAUDEN EREDUAK

Ikaskuntza-kontratuaren ereduak ikertzeko eta proposatzeko lanean, zenbait aukera diseinatu genituen:

- Kurtso osoan aplikatu eta egokitu daitezkeen bi ikaskuntza-kontratu orokor, ikasleek eta irakasleek kurtsoaren hasieran bete eta sinatzeko formulario gisa aurkeztuak ("Ikasle eta irakasleen ikaskuntza-kontratuaren eredu").
- Unitate didaktiko baten aurrerapena ebaluatzeko aplika daitezkeen ikaskuntza-kontratu bat ("Unitate didaktikoaren ikaskuntza-kontratuaren eredu").
- Hasierako galdetegi bat, ikaskuntza-kontratua egin aurrekoa, kurtsoaren hasieran negoziatzeko eta idazteko oinarri gisa erabil daitekeena ("Ikaskuntza-kontratuaren aurreko hasierako galdetegia").
- Umorean oinarritutako jardura didaktiko bat; Silvio Berlusconi italiarrekin sinatutako kontratua dela-eta telebistaz emandako *performance* politiko bat hartzea ikasleen eta irakaslearen kontratu-eredua egiteko ("Contratto con gli italiani di Silvio Berlusconi" https://www.edu.xunta.gal/centros/cafi/aulavirtual/pluginfile.php/158595/mod_folder/content/0/Contratto%20con%20gli%20italiani%20BERLUSCONI.docx).

Aipatutako ereduak esteka honetan kontsulta daitezke: <https://www.edu.xunta.gal/centros/cafi/aulavirtual/mod/folder/view.php?id=89506>

5. IKASKUNTZA-KONTRATUA: ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK

Ikaskuntza-kontratuen aplikazioari buruzko bibliografiak, batez ere Ameriketako Estatu Batuetan eta heldu unibertsitateen edo profesionalen hezkuntzaren esparrukoak (Henschke, 2012), azpimarratzen du ikaskuntza-kontratuak honetarako balio duela:

- Ikasleak une jakin batean dituen gaitasunak eta trebetasunak eta ikastaroaren bidez zer gaitasun eta trebetasun lortu nahi dituen alderatzea eta zehaztea. Horrela, hobeto zehaztu ahal izango du zein izango den desberdintasun horiek murrizteko estrategia.
- Ikaskuntzaren autokudeaketaren oinarri izango diren estrategiak eta baliabideak antolatzea eta garatzea, ikasleari prozesu horren gaineko kontrol handia emateko.
- Ikaslearen autonomia indibiduala eta ikaskuntza-kontzientzia azpimarratzea. Uste da, ikasgaia zabala bada ere, ikasleak jakingo duela zein diren beren premiak eta nola bete behar dituen.
- norbere burua ikasle gisa ebaluatzen irakastea, bai eta ikastea lortu den edo horri dagokionez pertsonak zer premia dituen erabakitzen ere. Banakako analisi hori egiteko eredu irekia da, baina ikaslearen parte-hartze aktiboa eskatzen du beti.
- Helduek ikasteko duten alde aurretiko jarrera bultzatzea; izan ere, interesatzen zaien gaia edo ikasi beharreko bezala sentitzen dutena da ikertzen/ikasten dutena.
- Ikasle gisa ikaskuntza bat lortzeko pertsonak zedarritu dituen helburuei buruzko erreferentzia bat eskaintzea, bai eta nola erakutsiko duen helburu horiek lortu dituela eta nola ebaluatuko diren ere.
- Ikaslea motibatzea eta hezkuntza-jardueran inplikatzeko.
- ikasitakoari buruzko ebaluazioa eta emaitza ere sartzeko, baina irakasle-bideratzailearen eta ikaslearen arteko negoziazioarekin eskatutako banakako helburuei eta nahi den nota lortzeko moduari dagokienez.

Ondorengoak dira ikaskuntza-kontratuaren desabantailak edo alderdi negatiboak, Paduako Unibertsitateko ikasle azterketaren arabera (Fedeli et al., 2013):

- baliabide-mota hori gaizki erabiltzea: zaila izan daiteke ikaskuntzaren emaitzak ezarritako helburuekin lotzea;
- baliabide horrekiko sentimendu negatiboak;
- erabiltzen ez jakitea;
- erabiltzeko edo aplikatzeko konplexutasuna;
- ikaskuntza lortzeko gehiegizko eskakizun-maila;
- alferrikako praktika izatea (Henschke, 2012).

Oro har, akordioak lortzeko eta konpromisoa bermatzeko kontratuak erabiltzea errotua dago gure gizartean. Kontratuak testuinguru akademikoetan erabiltzeak potentzial handia du, batez ere irakasle eta ikasle artean negoziazio-estrategia bat badago, ikaskuntza pertsonalizatzeko, eta are gehiago ingurune konplexu batean, hots, jardun biko eredu.

Galiziako testuinguruari eta hizkuntzen jardun biko irakaskuntzari dagokienez, horien erabilerak eragin positiboa izan du eskolan orain arte, eta oraindik ez da zehaztu beste esparru batzuetan ere sar daitekeen, ikasleak prestakuntzan hobeto orientatzeko, eta, horrela, haien autonomia eta ekimen pertsonala sustatzeko.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Bibliografia eta erreferentziak

- Brewer, G., Williams, A. eta Sher, W. (2007). *Utilising learning contracts to stimulate student ownership of learning*. [Txostena]. Australasian Association for Engineering Education 18th Annual Conference, Melbourne. <https://aace.net.au/wp-content/uploads/2018/10/AAEE2007-Brewer-Williams-Sher-Learning-contracts-to-stimulate-student-learning-ownership.pdf>
- Fedeli, M., Giampaolo, M. eta Coryell, J. E. (2013). The Use of Learning Contracts in an Italian University Setting. *Adult Learning*, 24(3), 104-111 <https://doi.org/10.1177/1045159513489113>
- Fernández González, M. D., Pastoriza, D. eta Eizaguirre Santillán, A. (2021). Proyecto SBLENDID. Hacia una comunidad de aprendizaje en el marco de la modalidad semipresencial. In M. C. Romero García & O. Buzón-García (Ed.), *Innovación e investigación docente en educación: Experiencias prácticas* (702- 720. or.). Dykinson
- Henschke, J. A.. (2012). *Research on the Use of Learning and Degree Contracts within University and Other Settings in Italy and the USA*. [Hitzaldia]. International Society for Comparative Adult Education Conference (2012) http://works.bepress.com/john_henschke/74/